

KANPOKO DESFIBRILAZIO AUTOMATIKOA (KDA)

Guirado I., Mendizabal G., Telleria I., Iburguren K.

KANPOKO DESFIBRILAZIO AUTOMATIKOA (KAD)

GUIRADO I

MENDIZABAL G

TELLERIA I

IBARGUREN K

SARRERA

Azken mendean teknologiak hartzen duen indarra begi-bistakoa da gizartearen alor guztiei begira. Osasun-bidean ere bada zer kontatze korik, batez ere ospitale aurreko zerbitzuetan. Muga honi dagokionez larrialdi-zerbitzuetan burutzen den lanak badu euskarri teknologikoaren abantaila, batez ere Oinarrizko Bizi Euskarrian (OBE), non eta urtez urte teknika berrien zabalkuntzek makinaria ezberdinen laguntza eskatzen duten zerbitzuaren optimizaziorako.

Kasutan-kasu OBE diren anbulantziek izan duten garapena aipagarritzat hartuko dugu. Bertan, garai bateko teknikak gaurko teknika berriek ordeztu dituzte. Inmobilizaziotik komunikabideetara, prestakuntzatik koordinaziora, hainbat eta hainbat mugarri dira egun euskarri honek kontuan hartzen dituenak, batez ere garapen teknologikoari begira.

Hauen barne, zerbitzuari berari izena ematen dion teknikak (Oinarrizko Bizi Euskarria eta ondorioz Bihotz Birika Berpizteak), burura dakarkigu Kanpoko Desfibrilagailu Automatikoak (KAD) suposatu duen aurrerapausoa, kontuan izanik bat-bateko heriotza-tasaren jaitziera hainbat ikerkuntzek adierazi izan duten bezala (Bruselako Esperientzia, American Heart Association,...)

HELBURUAK

Jendeak KAD bat zer den eta eskaintzen dituen aukerak ezagutzea.

METODOAK

KAD baten funtzionamendu eta aukera teorikoak labur azaldu ondoren, erakusketa praktikoko baten bidez bere erabilgarritasuna azaldu.

EMAITZA ETA ONDORIOAK

Tankeraz hain handiak diren Esku Desfibrilagailuetatik desberdindu daiteke bere erabilgarritasuna dela eta, baina desberdintasunik handiena erritmo desfibrilagarriak automatikoki detektatu eta txoke edo talkarako energia kalkulatzeko datza. Honek lehen oso mugaturik zegoen erabiltzailearen zirkulua asko zabaltzen du.

Hala eta guztiz ere, zenbait teknika ezagutzea eta lantzea eskatzen duen aparatua izaten jarraitzen du. Kontzeptu, prozesu eta jarrera batzuk eskuratzea eskatzen du.